


Euskal AEko landunak 1.500 gehiago dira eta langabezia-tasa %7,9an kokatu da, 2024ko lehen hiruhilekoan

Azken urtean, 17.800 landun gehiago izan dira, eta langabezia-tasak ehuneko puntu bat egin du behera, %8,9tik %7,9ra

Eustaten datuen arabera, Euskal AEko lan-merkatuko 2024ko lehen hiruhilekoko datuek aurreko hiruhilekoan baino 1.500 landun eta 9.100 langabe gehiago islatzen dituzte. 2024ko lehen hiruhilekoan, 84.600 pertsona zeuden langabezian eta 980.900 pertsona zeuden lanean. Euskal AEko langabezia-tasa % 7,9 da, 2023ko laugarren hiruhilekoan berrikusitako datu berria (% 7,2) baino ehuneko zazpi hamarren gehiago (ikus Ohar metodologikoa). Biztanleria landunaren eta langabearen bilakaeraren ondorioz, jarduera-tasa %56,4koa izan da 2024ko lehen hiruhilekoan, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko puntu erdi gehiago.

Azken urtean, 2023ko lehen hiruhilekoaren aldean, pertsona landunen kopurua %1,8 igo da, 17.800 pertsona gehiago; zerbitzuen sektoreak 11.500 landun gehiago ekarri ditu, industriak 6.800 gehiago eta lehen sektoreak 100 gehiago; eraikuntzak 600 landun gutxiago ekarri ditu. Langabeei dagokienez, langabezia-tasa ehuneko puntu bat jaitsi da (%8,9tik %7,9ra); beraz, 9.400 pertsonak langabezian egoteari utzi diote Euskal AEn.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera



Iturria: EUSTAT. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatze Inkesta

Lurralde historikoen arabera, eta aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, Gipuzkoan 4.500 landun gehiago daude, eta Araban 1.000 gehiago. Bizkaian, berriz, 4.000 pertsona gutxiago. Hiriburuei dagokienez, Donostian 1.900 pertsonatan igo da okupazioa eta Gasteizen 1.500 pertsonatan; Bilbon, berriz, 2.500 pertsonatan jaitsi da.

Landunek gora egin dute gizonen artean (+3.500), baina emakumeen artean 2.000 gutxiago dira. Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea duten pertsona landunak 6.000 gehiago izan dira (+%0,7), eta atzerriko nazionalitatea dutenak 4.500 gutxiago (-% 4,7).

Landunek gora egin dute zerbitzuen sektorean eta lehen sektorean

Euskal AEko biztanleria landunak gora egin du zerbitzuetan 4.100 pertsonatan (+%0,6) eta lehen sektorean 700 pertsonatan (+%9); hala ere, jaitsi egin da industrian 1.200 pertsonatan (-% 0,6) eta eraikuntzan 2.000 pertsonatan (-% 3,6).

Okupazio-tasa, 16 eta 64 urte bitarteko pertsona landunen ehunekoa adin horien guztizkoaren gainean kalkulatuta, 0,3 ehuneko-puntu jaitsi da aurreko hiruhilekoaren aldean, %69,9an kokatuz. Tasa hori %73,2an mantentzen da gizonen artean, eta %66,6ra jaisten da emakumeen artean.

Nazionalitateari dagokionez, okupazio-tasarik handiena Espainiako nazionalitatea duten pertsonen artean dago (%71,8), aurreko hiruhilekoaren aldean 0,2 ehuneko-puntu jaitsi baita; atzerriko nazionalitatea duten pertsonen artean, berriz, 1,7 puntu jaitsi da (%55,5).

Lurralde historikoka, okupazio-tasarik altuena Gipuzkoak du (%71,9), aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago; bigarrenik, Araba dago (%69,8), ehuneko 0,8 puntu gutxiago; eta azkenik, Bizkaian, okupazio-tasa ehuneko puntu erdi jaitsi da, %68,7ra iritsi arte.

Soldatapekoen kontratazio-modalitateari dagokionez, kontratu mugagabeak dituzten pertsonak 10.300 gehiago izan dira aurreko hiruhilekoaren aldean, eta 31.600 gehiago aurreko urtearen aldean.

Hamar etxetatik ia seitan, pertsona aktibo guztiak landunak dira

2024ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEn 920.600 etxeko unitate inguru daudela zenbatetsi da, eta horietatik heren batek ez du pertsona aktiborik, aurreko hiruhilekoan baino 900 gehiago; hamar etxeko unitatetik ia seitan pertsona aktibo guztiak landunak dira, 7.800 familia gutxiago; gainera, pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 29.300 dira, aurreko hiruhilekoan baino 3.900 gehiago.

2024ko lehen hiruhilekoan %7,9ko langabezia-tasa izan da

Urteko lehen hiruhilekoan, Euskal AEn 84.600 langabe daudela zenbatetsi da, hau da, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak. Emakume langabeen kolektiboak 41.800 emakume hartzen ditu, 6.400 gehiago. Gizon langabeena, berriz, 2.600 gehiago izan da, eta guztira 42.800 izan dira hiruhilekoan.

2024ko lehen hiruhilekoko datuen arabera, langabezia-tasa % 7,9 da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 0,7 puntu gehiago. Emakumeen langabezia-tasa ehuneko 1,2 puntu igo da % 8,2ra arte, eta gizonena % 7,7koa da (ehuneko +0,4 puntu).

Nazionalitateari dagokionez, Espainiako nazionalitatea dutenen artean 4.900 langabetu gehiago daude (58.300); atzerriko nazionalitatea dutenen artean 4.100 gehiago daude (26.200).

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian 5.800 langabe gehiago daude (49.800), eta langabezia-tasa ehuneko 1,1 puntu igo da (%9,1). Gipuzkoan %6,3ko tasa dugu; langabe kopuruan 2.900 gehiago, 22.100 guztira. Araban, 300 langabe gehiago daude (12.600), eta langabezia-tasa ehuneko 0,2 puntu igo da (%7,8).

Hiriburuei dagokienez, langabeziak gora egin du Bilbon (1.700 pertsona) eta Donostian (1.100 pertsona), aurreko hiruhilekoaren aldean; Gasteizen, berriz, behera egin du (500 pertsona gutxiago).

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2024ko otsailean Europar Batasun osoko langabezia-tasa, urtaroen eragina kenduta, %6koa izan zen eta Espainiakoa %11,5koa.

Hiruhilekoko batez besteko afiliatuen %97,4 landuna da, NLEren irizpidearen arabera.

Kalkuluen arabera, Euskal AEn 938.100 pertsona daude afiliatuta hiruhileko batez bestekoan, hau da, Euskal AEn bizi diren eta Gizarte Segurantzaren afiliatuta dauden pertsonak, hiruhilekoan lan egindako egun kopuruaren arabera haztatuta. Horietatik, %97,4 landuna da, BJAK erabiltzen dituen Lanaren Nazioarteko Erakundearen (LNE) irizpidearen arabera, hau da, 914.100 pertsona.

BJAko landunen artean, 39.600 (%4) ez daude Gizarte Segurantzaren afiliatuta, funtzionarioen mutualitate publikoetakoak direlako edo beste egoera batzuetan daudelako.

Langabeen %38,8 ez daude erregistratutako langabe gisa zenbatuta

Zenbatespenen arabera, Euskal AEn 93.800 langabe daude erregistratuta Lanbiden hiruhileko batez bestekoan, hau da, Euskal AEn bizi diren pertsonak, eta inkesta egin zen unean Lanbiden erregistratuta zeuden erregistratutako langabezia-kategorietako batean. Horietatik, %51,8 langabeak dira, NLEren definizioaren arabera. (48.600 pertsona). BJAKo NLE langabeen artean, %38,8 ez dago langabe gisa erregistratuta Lanbiden (32.800 pertsona), baina enplegu-eskatzaileen beste kategoria batzuetan ere erregistratuta egon daiteke.

Ohar metodologikoa:

Urte bakoitzeko lehen hiruhileko guztietan bezala, Eustatek biztanleriari buruzko datu berriak sartu ditu, eta, horren ondorioz, 2022ko datuak (behin betikoak izatera igaro dira), eta 2023ko datuak (behin-behinekoak izatera igaro dira) berrikusi dira urte horretako urtarrilaren 1eko biztanleriaren egunerapenarekin. Horrek hiruhileko guztietako datuak eguneratzea ekarri du, eta, adibide gisa, 2023ko laugarren hiruhilekoko langabezia-tasa, behin-behineko datuaren arabera %7koa zena, %7,2koa da orain, berrikuspen horren ondoren.

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. 2024/I

	2024/I	2023/IV	t/t-1	
	Mila	Mila	Mila	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.890,1	1.885,8	+4,3	0,2
BIZTANLERIA AKTIBOA	1.065,5	1.054,9	+10,6	+1,0
Gizonak	555,1	549,0	+6,1	+1,1
Emakumeak	510,3	505,9	+4,4	+0,9
Araba/Álava	162,8	161,5	+1,3	+0,8
Bizkaia	550,5	548,6	+1,9	+0,3
Gipuzkoa	352,2	344,8	+7,4	+2,1
Vitoria-Gasteiz	120,8	119,8	+1,0	+0,8
Bilbao	168,8	169,5	-0,7	-0,4
Donostia / San Sebastian	89,5	86,6	+2,9	+3,3
Beste udalerriak	686,4	679,0	+7,4	+1,1
Espainiarrak	948,3	937,4	+10,9	+1,2
Atzerriko nazionalitatea	117,1	117,5	-0,4	-0,3
BIZTANLERIA LANDUNA	980,9	979,4	+1,5	+0,2
Gizonak	512,4	508,9	+3,5	+0,7
Emakumeak	468,5	470,5	-2,0	-0,4
Araba/Álava	150,2	149,2	+1,0	+0,7
Bizkaia	500,6	504,6	-4,0	-0,8
Gipuzkoa	330,1	325,6	+4,5	+1,4
Vitoria-Gasteiz	110,7	109,2	+1,5	+1,4
Bilbao	150,5	153,0	-2,5	-1,6
Donostia / San Sebastian	83,3	81,4	+1,9	+2,3
Beste udalerriak	636,4	635,7	+0,7	+0,1
Espainiarrak	890,0	884,0	+6,0	+0,7
Atzerriko nazionalitatea	90,9	95,4	-4,5	-4,7
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	8,5	7,8	+0,7	+9,0
Industria	199,8	201,0	-1,2	-0,6
Erakuntza	54,0	56,0	-2,0	-3,6
Zerbitzuak	718,6	714,5	+4,1	+0,6
Soldatakoa	803,5	803,5	+0,0	+0,0
- Lan-kontratu mugagabearekin	640,3	630,0	+10,3	+1,6
--- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	163,3	173,6	-10,3	-5,9
Soldatarik gabeak	177,4	175,8	+1,6	+0,9
BIZTANLERIA LANGABEA	84,6	75,5	+9,1	+12,1
Gizonak	42,8	40,2	+2,6	+6,5
Emakumeak	41,8	35,4	+6,4	+18,1
16 - 24 urte	9,9	8,6	+1,3	+15,1
25 - 44 urte	37,0	34,9	+2,1	+6,0
45 urte eta gehiago	37,7	32,1	+5,6	+17,4
Araba/Álava	12,6	12,3	+0,3	+2,4
Bizkaia	49,8	44,0	+5,8	+13,2
Gipuzkoa	22,1	19,2	+2,9	+15,1
Vitoria-Gasteiz	10,1	10,6	-0,5	-4,7
Bilbao	18,2	16,5	+1,7	+10,3
Donostia / San Sebastian	6,3	5,2	+1,1	+21,2
Beste udalerriak	50,0	43,2	+6,8	+15,7
Espainiarrak	58,3	53,4	+4,9	+9,2
Atzerriko nazionalitatea	26,2	22,1	+4,1	+18,6
BIZTANLERIA EZ-AKTIBOA	824,6	830,9	-6,3	-0,8
ETXEGUNEAK	920,6	919,5	+1,1	+0,1
Pertsona aktiboekiko familia-etxeak	609,5	609,3	+0,2	+0,0
- Denak okupatuak	542,0	549,8	-7,8	-1,4
- Denak langabeak	29,3	25,4	+3,9	+15,4
Pertsona aktiborik gabeko familia-etxeak	311,1	310,2	+0,9	+0,3

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikusatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etik populazioaren gaueko zenak.

t/t1 Behatutako azken hiru hilabetearen aurreko hiru hilabetearen aldean

Data 2023ko Urriaren 20a

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Euskal AEko jardueraren arabera biztanleria. Tasa nagusiak. 2024/I

	2024/I	2023/IV	t/t-1 (p.p.)
JARDUERA-TASA	56,4	55,9	+0,5
Gizonak	61,3	60,7	+0,6
Emakumeak	51,9	51,6	+0,3
Araba/Álava	57,8	57,6	+0,2
Bizkaia	55,5	55,4	+0,1
Gipuzkoa	57,1	56,1	+1,0
Vitoria-Gasteiz	57,3	57,1	+0,2
Bilbao	56,7	56,6	+0,1
Donostia / San Sebastian	57,0	55,1	+1,9
Beste udalerriak	56,1	55,7	+0,4
Espainiarrak	55,1	54,7	+0,4
Atzerriko nazionalitatea	69,3	68,2	+1,1
OKUPAZIO-TASA (16 urtetik 64ra)	69,9	70,2	-0,3
Gizonak	73,2	73,2	+0,0
Emakumeak	66,6	67,3	-0,7
Araba/Álava	69,8	70,6	-0,8
Bizkaia	68,7	69,2	-0,5
Gipuzkoa	71,9	71,8	+0,1
Vitoria-Gasteiz	68,8	70,0	-1,2
Bilbao	68,8	69,2	-0,4
Donostia / San Sebastian	74,0	73,1	+0,9
Beste udalerriak	69,9	70,2	-0,3
Espainiarrak	71,8	72,0	-0,2
Atzerriko nazionalitatea	55,5	57,2	-1,7
LANGABEZIA TASA	7,9	7,2	+0,7
Gizonak	7,7	7,3	+0,4
Emakumeak	8,2	7,0	+1,2
16 - 24 urte	15,2	14,8	+0,4
25 - 44 urte	8,7	8,1	+0,6
45 urte eta gehiago	6,5	5,6	+0,9
Araba/Álava	7,8	7,6	+0,2
Bizkaia	9,1	8,0	+1,1
Gipuzkoa	6,3	5,6	+0,7
Vitoria-Gasteiz	8,4	8,8	-0,4
Bilbao	10,8	9,7	+1,1
Donostia / San Sebastian	7,0	6,0	+1,0
Beste udalerriak	7,3	6,4	+0,9
Espainiarrak	6,2	5,7	+0,5
Atzerriko nazionalitatea	22,4	18,8	+3,6
INAKTIBOTASUN TASA	43,6	44,1	-0,5

Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1etik populazioaren gaurkotzearekin.

t/t1 Behatutako azken hiru hilekoaren aldakuntza aurreko hiru hilekoaren aldean

p.p = Aldea portzentajezko puntutan

Data 2023ko Urriaren 20a

Iturria: Eustat. Biztanleria Jardueraren Arabera sailkatzeko Inkesta

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62